



BEZEROAREKIKO HARREMANAK

Gure negozio-ereduan funtsezkoa da bezeroekin harreman sendoak izatea, hurbila eta iraunkorrak. Gure produktuak segurtasunarekin lotura zuzena baitauka, horregatik, harreman pertsonala eta automatizatua uztartzen dituen estrategia bat erabiltzen dugu.

BEZERO BERRIAK ERAKARTZEKO ESTRATEGIAK

Informazio argia eta espezializatua eskainiko dugu bezero berriak erakartzeko, beraz informazio tekniko guztia modu ulergarrian eskainiko dugu. Hori egiteko webgunean produktuaren azalpen zehatza agertuko da, funtzionamenduaren bideo laburrak, APP-a nola funtzionatzen duen eta segurtasun-arauak eta dituen abantailak argi azalduta. Horrek konfidantza handia sortzen du lehen unetik.

Bestalde, gure bezero nagusiak etxebizitza pribatuetako pertsonak dira, batez ere mugikortasun urriko pertsonak, adinekoak edo desgaitasunen bat duten pertsonak. Horregatik, komunikazioa sare sozialen bidez, webgunearen eta ahoz-ahoko gomendioen bidez izango da. Harreman hurbila eta konfiantzazkoa bilatzen dugu, salmenta bortxatu gabe.

BEZEROAREKIN EZARRI NAHI DEN HARREMAN MOTA

Bezeroarekiko harremana nagusiki laguntza pertsonal eskainia da, eta zerbitzu automatizatuak osatzen dute. Bezero partikularrei arreta zuzena eskaintzen zaie instalazioaren aurretik, bitartean eta ondoren, zalantzak argitzeko eta sistemaren erabilera egokia bermatzeko. Harremana email bidez, telefono bidez edo aurrez aurreko azalpenen bidez egiten da, bezeroaren beharretara egokituz.

Osagarri gisa, zerbitzu automatizatua eta autozerbitzua bigarren mailako laguntza bezala jarriko dugu. Alde batetik, zerbitzu automatizatua, APP-ak kodigoak sortzen ditu, jakinarazpenak bidaltzen ditu eta larrialdien erregistroa kudeatzen ditu. Bestalde, autozerbitzua webgunearen bidez bezeroak informazioa kontsultatu eta mantentze-eskaerak egin ditzake.

BEZEROAK MANTENTZEKO

Bezeroa gure sistemari lotuta mantentzeko, mantentze-zerbitzu sinple eta merkea izango du. Hau 5 urteko berrikuspenekin eta funtzionamenduaren bermearekin lortuko dugu, horrek segurtasun sentsazioa transmitituko dio bezeroari.

Horrez gain, bezeroari aldizkako informazioa bidaliko zaio, adibidez: sistemaren eguneraketak, segurtasun gomendioak edota erabilera aholkuak.

Bezeroa gure negozio-ereduan integratzeko harpidetza sinplea egingo dugu. Hau da, bezeroek aukera izango dute urteko mantentze-harpidetza egiteko prezio finko eta argiarekin eta zerbitzu tekniko lehentasunarekin. Gainera, bezeroen iritzia asko

SegurAte



baloratuko da eta haien esperientziak kontuan hartuko ditugu. Hala nola sistemaren hobekuntzak egiteko, APParen funtzio berriak garatzeko... Horrela bezeroak proiektuaren parte sentitzen dira.